



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETIA HEREDUNTZA POLITIKA SABA DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EAEko kultura-programazioaren azterketa

2024ko hirugarren hiruhilekoa





Aurkibidea

0. AURKEZPENA	3
1. FITXA TEKNIKOA	4-6
Azterketa-unibertsoa	5
Ohar metodologikoak	6
2. EKITALDIEN AZTERKETA	7-9
Datuen laburpena	8
Ekitaldien banaketa, motaren arabera	9
Ekitaldien banaketa, lurraldearen eta hizkuntzaren arabera	10
3. KONTZERTUAK	11-15
Ekitaldiak, sarreren prezioa eta espazioa	12
Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera	13
Kontzertuen banaketa, hizkuntzaren arabera	14
Kontzertuen banaketa, musika-generoaren arabera	15
4. ANTZERKIA	16-21
Emanaldiak eta sarreren prezioa	17
Antzerki-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera	18
Antzerki-emanaldien banaketa, hizkuntzaren arabera	19
Antzerki-emanaldien banaketa, antzerki-generoaren arabera	20
Antzerki-emanaldien banaketa, publikoaren eta espazioaren arabera	21
5. DANTZA	22-25
Emanaldiak eta sarreren prezioa	23
Dantza-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera	24
Dantza-emanaldien banaketa, dantza-generoaren arabera	25
6. BERTSOLARITZA	26-28
Ekitaldiak eta haien banaketa, lurraldearen arabera	27-28
7. ERAKUSKETAK	29-32
Ekitaldiak eta haien banaketa, lurraldearen arabera	30-31
Erakusketa-motak	32



0- Aurkezpena

2024ko uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean programatutako kultura-ekintzen azterketa

2024ko uztailaren 1etik irailaren 30era bitarteko kultura-programazioaren egoeraren berri ematen du txosten honek.

Bi ataletan banatuta dago azterketa. Batetik, kultura-programazioaren egoera erakusten da bere osotasunean, ekitaldi-moten arabera eta 2023ko epealdi bereko datuekin alderatuta. Bestetik, bost kultura-esparru zehatzen kultura-programazioaren errealitatean sakontzen da: **Musika**, **Antzerkia**, **Dantza**, **Bertsolaritza** eta **Erakusketak**.



1. Fitxa teknikoa

Azterketa honetarako erabilitako
unibertsoa





AZTERKETA-UNIBERTSOA

INFORMAZIO-ITURRIA	Kulturklik (www.kulturklik.euskadi.eus)
AZTERTUTAKO UNIBERTSOA	4.185 ekitaldi Unibertso osoa, ez lagin bat
JASOTAKO EKITALDI-MOTAK	13 ekitaldi-mota Kontzertuak, Antzerkia, Erakusketak, Dantza, Bertsolaritza, Jaiak, Hitzaldiak, Azokak, Zinema eta ikus-entzunezkoak, Ikastaroak/tailerrak, Lehiaketak, Jaialdiak eta zikloak, Bestelakoak
AZTERTUTAKO EPEALDIA	2024ko uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean programatutako ekitaldiak
AZTERTUTAKO LURRALDEAK	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa
DATUEN AZTERKETA ETA KOORDINAZIO TEKNIKOA	Kualitate Lantaldea (Kulturklik taldea)



OHAR METODOLOGIKOAK

ERAKUSKETAK

- Aztertutako erakusketak erreferentziazko epealdian (2024ko hirugarren hiruhilekoa) inauguratutakoak dira, haien amaiera-data edozein dela ere. Ez dira kontuan izan uztaila eta iraila bitartean jendearentzat irekita zeuden arren **2024ko uztailaren 1a baino lehen inauguratu ziren erakusketak**.

ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

- Kulturklien ez dira jasotzen EAEko zinema-areto guztietako **film komertzialen emanaldiak**. Honako hauek baino ez dira argitaratzen Kulturklikeko agendan: **euskal filmen emanaldiak EZAren zinema-areoetan**, euskarazko filmen emanaldiak (**Zinema Euskaraz**) eta programa bereziekin lotutako emanaldiak (**zinema-zikloak, zineforumak eta/edo zineklubak, esaterako**).

PREZIOAREN ALDAGAIA

- **Kontzertuen eta antzerki- eta dantza-emanaldien prezioa soilik hartu da kontuan**. Ez da aztertu bertsolaritza-ekitaldien eta erakusketen prezioa, bi arrazoi nagusirengatik: batetik, doako ekitaldiak izaten dira kasu askotan (aire zabaleko bertso-saioak eta kultur etxeetako edo udal-espazioetako erakusketak doan izaten dira ia beti); bestetik, bi ekitaldi-mota horietan, sarrerek ekitalditik haragoko beste jarduera batzuk ere barne hartzen dituzte maiz (adibidez, bertso-afari edo -bazkarietako sarrerek barne hartzen dituzte afaria edo bazkaria, eta museoetako sarrerek zentro jakin horren erakusketa-eskaintza osoa bisitatzeko aukera ematen dute, erakusketa bakarrera mugatu ordez). Aztertutako unibertsoari dagokionez, **batez besteko prezioa kalkulatzeko**, ordainpeko kontzertuak eta dantza- edo antzerki-ikuskitunak baizik ez dira izan dira kontuan, hots, **kanpoan utzi dira doako ekitaldiak**.

EMANALDIEN ARABERAKO AZTERKETA, ANTZERKIAN ETA DANTZAN

- **Antzerkiaren eta dantzaren kasuan, emanaldien arabera** egin da azterketa, eta ez ekitaldien arabera. Horrez gain, estatistika-helburuekin, formatu txikiko antzezlanak programatutako egunen arabera zenbatu dira, eta ez egindako emanaldien arabera.

AUTOMATIZAZIOEN ERAGINA

- Kulturklien etengabeko hobekuntza-prozesuaren baitan, **edukiak argitaratzeko automatizazio-mekanismoak** jarri dira martxan EAEko hainbat kultura-eragilerekin. Horren ondorioz, **ekitaldi-mota batzuen kopurua hazi egin da**; honako hauena, besteak beste: Bestelakoak, Zinema eta ikus-entzunezkoak eta Hitzaldiak.

2. Ekitaldien azterketa

EAEko kultura-jardueraren laburpena:
2024ko uztailak 1-irailak 30





DATUEN LABURPENA

Kulturklikeko agendan jasotako datuen arabera, 4.185 kultura-ekitaldi egin dira EAEn uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean.

4.185 ekitaldi

2024ko 3. hiruhilekoan

3.822 ekitaldi


2023ko 3. hiruhilekoan

+% 9



EKITALDIEN BANAKETA, MOTAREN ARABERA

1. grafikoa: Ekitaldien banaketa, motaren arabera (dantza eta antzerkia emanaldien arabera jaso dira)




*Jaiak; Lehiaketak; Ikastaroak/tailerrak; Jaialdiak eta zikloak; Ipuin-kontaktak; eta Azokak.



EKITALDIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ETA HIZKUNTZAREN ARABERA

2. grafikoa: Ekitaldien banaketa, lurraldearen arabera (%)



2023ko hirugarren hiruhilekoan:

- Araba: % 15,7
- Bizkaia: % 42,1
- Gipuzkoa: % 42,2

1. taula: Ekitaldien banaketa, hizkuntzaren arabera arabera (%)

	EKITALDIAK (2024KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)	EKITALDIAK (2023KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)
EUSKARA	35,3	35,4
GAZTELANIA	28,0	26,5
HIZKUNTZA GABE	15,7	15,1
HAINBAT HIZKUNTZA*	9,9	9,2
INGELESA	4,3	7,3
BESTE BATZUK	1,1	1,5
EZEZAGUNA	5,7	5,0

Honako ekitaldi-mota hauek hartu dira kontuan: Kontzertuak; Antzerkia; Hitzaldiak; Zinema eta ikus-entzunezkoak; Ipuin-kontaktak; Ikastaroak eta tailerrak; eta Bertsolaritza.

*Hizkuntza bat baino gehiago barnean hartzen duten ekitaldiak dira.



3. Kontzertuak

2024ko hirugarren hiruhilekoan EAEn izandako kontzertuen azterketa



KONTZERTUAK: EKITALDIAK, SARREREN PREZIOA ETA ESPAZIOA

1.588
kontzertu

+% 3,5

2023ko 3. hiruhilekoarekin alderatuta

2024ko hirugarren hiruhilekoan, EAEn egin diren 1.588 kontzertu jaso dira Kulturkliken.

Ordainpeko kontzertuen batez besteko prezioa 18,2 eurokoa izan da. 2023ko epealdi berean 16,9 eurokoa izan zen. Kontzertuen % 77,2 doan izan dira (% 75,6, 2023an).

Azkenik, nabarmendu behar da musika-emanaldien % 59 kanpoaldean izan direla (% 60, 2023an).

Sarrereren batez besteko

PREZIOA

18,2 €

16,9 €

2023ko 3. hiruhilekoan

PREZIOA

(mediana)

15,0 €


12,5 €

2023ko 3. hiruhilekoan



KONTZERTUEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

3. grafikoa: Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera (%)



2023ko hirugarren hiruhilekoan:

- **Araba: % 13,6**
- **Bizkaia: % 40,6**
- **Gipuzkoa: % 45,8**

2. taula: Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	KONTZERTUAK, 100.000 biztanleko (2024KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)	KONTZERTUAK, 100.000 biztanleko (2023KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)
ARABA	73	63
BIZKAIA	58	55
GIPUZKOA	88	98

Kulturklien jasotako kontzertuen banaketa lurraldearen arabera aztertuta, kontzertu guztien % 43,0 Gipuzkoan izan dira, % 41,8 Bizkaian eta % 15,2 Araban.

Kontzertuen banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko kalkulatuta, Gipuzkoa izan da kontzertu gehien programatu duen lurraldea: 88 ekitaldi 100.000 biztanleko.

KONTZERTUEN BANAKETA, HIZKUNTZAREN ARABERA

3. taula: Kontzertuen banaketa, hizkuntzaren arabera (%)

	KONTZERTUAK (2024KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)	KONTZERTUAK (2023KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)
EUSKARA	29,0	28,2
GAZTELANIA	19,6	18,3
HIZKUNTZA GABE	19,0	18,0
HAINBAT HIZKUNTZA*	16,6	15,3
INGELESA	8,4	13,4
BESTE BATZUK	1,3	2,3
EZEZAGUNA	6,1	4,5

Kontzertuen hizkuntzari dagokionez, **euskara izan da hizkuntza erabiliena** 2024ko hirugarren hiruhilekoan EAEn egindako musika-emanaldietan: kontzertuen % 29 euskaraz izan dira, gaztelaniazko kontzertuen (% 19,6) eta hizkuntza gabeko musika-emanaldien (% 19,0) aurretik.

Hainbat hizkuntzatako kontzertuak % 16,6 izan dira, ingelesezkoen (% 8,4) aurretik.

*Hizkuntza ezberdinetan abesten duten taldeek ekitaldi beraren barruan ematen dituzten kontzertuak dira gehienbat.

KONTZERTUEN BANAKETA, MUSIKA-GENEROAREN ARABERA

4. taula: Kontzertuen banaketa, musika-generoaren arabera (%)

	KONTZERTUAK (2024KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)	KONTZERTUAK (2023KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)
MUSIKA GARAIKIDEA (pop-a, rock-a, heavy-a, rap-a, jazz-a, funk-a, fusio-musika, reggaea...)	79,3	82,3
MUSIKA KLASIKOA	8,8	8,9
MUSIKA ESPIRITUALA (koral, erlijiosoa, gospela...)	4,8	3,5
EUSKAL MUSIKA HERRIKOI ETA TRADIZIONALA	3,8	2,9
MUNDUKO MUSIKAK	3,2	2,5

Musika garaikideko emanaldiek izan dute presentzia handiena kontzertuen agendan; emanaldi guztien % 79,3 genero horretakoak izan dira.

Musika klasikoko kontzertuak guztien % 8,8 izan dira, eta musika espiritualekoak % 4,8.

Euskal musika herrikoi eta tradizionala generoko kontzertuak guztien % 3,8 izan dira, eta munduko musikak generokoak, % 3,2.



4. Antzerkia

2024ko hirugarren hiruhilekoan EAEn izandako antzerki-emanaldien azterketa





ANTZERKIA: EMANALDIAK ETA SARREREN PREZIOA

935
emanaldi

+% 5,0

2023ko 3. hiruhilekoarekin alderatuta

2024ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko 935 antzerki-emanaldi jaso dira Kulturkliken.

Ordainpeko antzerki-emanaldien batez besteko prezioa 23,7 eurokoa izan da. Antzerki-emanaldien % 55,3 doan izan dira (% 53,9 2023ko epealdi berean).

Sarrereren batez besteko
PREZIOA

23,7 €

21,9 €

2023ko 3. hiruhilekoan

PREZIOA
(mediana)


22,0 €

19,0 €

2023ko 3. hiruhilekoan

ANTZERKI-EMANALDIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

4. grafikoa: Antzerki-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera (%)



■ Bizkaia ■ Gipuzkoa ■ Araba

2023ko hirugarren hiruhilekoan:

- **Araba: % 19,2**
- **Bizkaia: % 49,0**
- **Gipuzkoa: % 31,8**

5. taula: Antzerki-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	ANTZERKI-EMANALDIK, 100.000 biztanleko (2024KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)	ANTZERKI-EMANALDIK, 100.000 biztanleko (2023KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)
ARABA	52	52
BIZKAIA	44	38
GIPUZKOA	36	39

Kulturklien jasotako antzerki-emanaldien banaketa lurraldearen arabera aztertuta, % 54,0 Bizkaian izan dira, % 27,6 Gipuzkoan eta % 18,4 Araban.

Emanaldien banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko kalkulatuta, **handiagoa** izan da **Arab**an (52), Bizkaian (44) eta Gipuzkoan (36) baino.

ANTZERKI-EMANALDIEN BANAKETA, HIZKUNTZAREN ARABERA

6. taula: Antzerki-emanaldien banaketa, hizkuntzaren arabera (%)

	ANTZERKI-EMANALDIAK (2024KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)	ANTZERKI-EMANALDIAK (2023KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)
GAZTELANIA	43,5	46,2
EUSKARA	31,7	32,8
HIZKUNTZA GABE	21,9	19,3
HAINBAT * HIZKUNTZA	2,6	1,2
BESTE BATZUK	0,3	0,4

Hirugarren hiruhilekoan egin diren antzerki-emanaldien % 43,5 gaztelaniaz izan dira; % 31,7, euskaraz.

Bestalde, emanaldien % 21,9 testu gabeak izan dira; horien % 93, kaleko antzezlanak eta zirku-ikuskitzak.

*Aldi berean hizkuntza bat baino gehiago darabilten antzezlanen emanaldiak edo hizkuntza ezberdinetako emanaldiak dituzten antzerki-ekitaldiak.

ANTZERKI-EMANALDIEN BANAKETA, ANTZERKI-GENEROAREN ARABERA

7. taula: Antzerki-emanaldien banaketa, antzerki-generoaren arabera (%)

	ANTZERKI-EMANALDIAK (2024KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)	ANTZERKI-EMANALDIAK (2023KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)
TESTU-ANTZERKIA	26,6	27,4
ZIRKUA	26,6	23,7
KALE-ANTZERKIA	18,1	22,7
ANTZERKI MUSIKALA	13,5	14,8
BAKARRIZKETAK	7,2	3,5
MAGIA	6,4	6,2
ANTZERKI LIRIKOA	0,9	0,6
BESTE BATZUK	0,7	1,1

Testu-antzerkia eta zirkua izan dira 2024ko uztailetik irailera bitartean EAEn emanaldi gehien izan duten generoak (emanaldien % 26,6 kasu bietan).

Emanaldi-kopuru handiena izan duen hirugarren antzerki-generoa **kale-antzerkia** izan da, emanaldi guztien % 18,1ekin, eta laugarrena, **antzerki musikala** (% 13,5).

Jarraian kokatu dira **bakarrizketak** (% 7,2) eta **magia** (% 6,4). Azkenik, **antzerki lirikoko emanaldiak** % 0,9 izan dira, eta "**beste batzuk**" moduan sailkatutako ikuskizunak (**hizkuntza gabeko antzerki-emanaldiak: txotxongiloak, maskarak...**), emanaldien % 0,7.

ANTZERKI-EMANALDIEN BANAKETA, PUBLIKOAREN ETA ESPAZIOAREN ARABERA

Emanaldien

% 50

haurrentzat eta/edo familientzat

% 51

2023ko epealdi berean

Emanaldien

% 54

kanpoaldean

% 52

2023ko epealdi berean



5. Dantza

2024ko hirugarren hiruhilekoan
EAEn izandako dantza-emanaldien
azterketa





DANTZA: EMANALDIAK ETA SARREREN PREZIOA

196
emanaldi

+% 8,2

2023ko 3. hiruhilekoarekin alderatuta

2024ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko 196 dantza-emanaldi jaso dira.

Ordainpeko dantza-ikuskizunen batez besteko prezioa 14,0 eurokoa izan da. Dantza-ikuskizunen % 88,3 doan izan dira (% 86,3, 2023ko epealdi berean). Bestalde, emanaldien % 81 kanpoaldean egin dira (% 77, 2023ko epealdi berean).

Sarrereren batez besteko
PREZIOA

14,0 €

12,8 €

2023ko 3. hiruhilekoan

PREZIOA
(mediana)


12,0 €

10,3 €

2023ko 3. hiruhilekoan

DANTZA-EMANALDIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

5. grafikoa: Dantza-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera (%)



2023ko hirugarren hiruhilekoan:

- **Araba: % 8,3**
- **Bizkaia: % 40,9**
- **Gipuzkoa: % 50,8**

8. taula: Dantza-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	DANTZA-EMANALDIK, 100.000 biztanleko (2024KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)	DANTZA-EMANALDIK, 100.000 biztanleko (2023KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)
ARABA	5	5
BIZKAIA	7	6
GIPUZKOA	13	13

Dantza-emanaldi guztien % 49,0 Gipuzkoan izan dira, % 41,8 Bizkaian eta % 9,2 Araban.

Dantza-emanaldien banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko kalkulaturik, Gipuzkoak 13 emanaldi programatu ditu, Bizkaiak 7 eta Arabak 5.

DANTZA-EMANALDIEN BANAKETA, DANTZA-GENEROAREN ARABERA

9. taula: Dantza-emanaldien banaketa, dantza-generoaren arabera (%)

	DANTZA-EMANALDIK (2024KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)	DANTZA-EMANALDIK (2023KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)
DANTZA GARAIKIDEA	63,3	64,1
DANTZA TRADIZIONALA	31,6	31,5
BALLET KLASIKOA	2,0	2,2
BESTE BATZUK	3,1	2,2

Dantza garaikidea izan da EAEko agertokietan presentzia handiena izan duen dantza-generoa, emanaldi guztien % 63,3rekin. Dantza tradizionala izan da bigarrena, emanaldien % 31,6rekin.

Emanaldien % 3,1 "beste batzuk" moduan sailkatutakoak izan dira (dantza eta beste diziplina artistiko batzuk –zirkua edo kale-antzerkia, adibidez– uztartzen dituzten ikuskizunak gehienak).

Azkenik, dantza-emanaldi guztien % 2,0 ballet klasikokoak izan dira.



6. Bertsolaritza

2024ko hirugarren hiruhilekoan EAEn izandako bertso-ekitaldien azterketa




BERTSOLARITZA: EKITALDIAK ETA HAIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

231
bertso-saio

+% 2,6

2023ko 3. hiruhilekoarekin alderatuta

6. grafikoa: Bertso-saioen banaketa, lurraldearen arabera (%)



2023ko hirugarren hiruhilekoan:

- Araba: % 6,7
- Bizkaia: % 36,9
- Gipuzkoa: % 56,4

BERTSOLARITZA: EKITALDIAK ETA HAIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

10. taula: Bertso-saioen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	BERTSO-SAIOAK, 100.000 biztanleko (2024KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)	BERTSO-SAIOAK, 100.000 biztanleko (2023KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)
ARABA	6	5
BIZKAIA	7	7
GIPUZKOA	19	18


2024ko hirugarren hiruhilekoan egindako bertso-saioen % **58,0 Gipuzkoan** izan dira, % 34,2 Bizkaian eta % 7,8 Araban.

Kulturk liken jasotako bertso-saioen banaketa lurraldearen arabera **100.000 biztanleko nabarmen handiagoa da Gipuzkoan** (19 ekitaldi 100.000 biztanleko), Bizkaian (7) eta Araban (6) baino.



7. Erakusketak

2024ko hirugarren hiruhilekoan
EAEn izandako erakusketen
azterketa




ERAKUSKETAK: EKITALDIAK ETA HAIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

214
erakusketa

+% 2,4

2023ko 3. hiruhilekoarekin alderatuta

7. grafikoa: Erakusketen banaketa, lurraldearen arabera (%)



■ Bizkaia ■ Gipuzkoa ■ Araba

2023ko hirugarren hiruhilekoan:

- **Araba: % 19,1**
- **Bizkaia: % 41,1**
- **Gipuzkoa: % 39,7**

ERAKUSKETAK: EKITALDIAK ETA HAIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

11. taula: Erakusketen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	ERAKUSKETAK, 100.000 biztanleko (2024KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)	ERAKUSKETAK, 100.000 biztanleko (2023KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)
ARABA	8	12
BIZKAIA	9	8
GIPUZKOA	11	12

2024ko uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean inauguratutako erakusketen **erdiek (% 50,0) Bizkaian ireki dituzte atea**, % 37,4k Gipuzkoan eta % 12,6k Araban.

Erakusketen banaketa lurraldearen arabera **100.000 biztanleko** kalkulaturik, **handiagoa izan da Gipuzkoan** (11 ekitaldi 100.000 biztanleko), Bizkaian (9) eta Araban (8) baino.

ERAKUSKETA-MOTAK

12. taula: Erakusketen banaketa, motaren arabera (%)

	ERAKUSKETAK (2024KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA)
ARTE GARAIKIDEA	73,8
ARTE EDERRAK	7,9
ETNOGRAFIA ETA ANTROPOLOGIA	5,1
HISTORIA	3,3
ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA	2,8
NATUR ZIENTZIAK ETA HISTORIA NATURALA	1,9
DEKORAZIO-ARTEAK ETA DISEINUA	1,4
ARKEOLOGIA	0,5
BESTELAKOAK	3,3

Hirugarren hiruhilekoan EAEn inauguratu diren erakusketen % 73,8 arte garaikidekoak izan dira, % 7,9 arte ederretakoak eta % 5,1 etnografia eta antropologiakoak.

Halaber, inauguratutako erakusketen % 3,3 historiari buruzkoak izan dira, % 2,8 zientziari eta teknologiari buruzkoak, % 1,9 natur zientziei eta historia naturalari buruzkoak eta % 0,5 arkeologiari buruzkoak.